

DEBAGOIENA PIZTU!



¡DEBAGOIENA ON!

Bazenekien...

- Kontsumitzen dugun energiaren zati handi bat erregai fosiletatik datorrela eta hein handi batean klima-aldaketaren errudunak direla erregai hauek?
- Erabiltzen dugun energiaren beste parte handi bat zentral nuklearretatik datorrela eta teknologia nuklearrak arrisku handiak dakartzala?
- Lehengai energetikoen kontrolagatik pizten direla zenbait gerra?

Ezaguna egiten al zaizu "ate birakari" terminoa, Espainiako klase politikoak eta konpainia elektriko handiek sortutako botere ekonomikoko zirkuluarekin lotua? Bazenekien egoera honek diru-kutxa publikoei, ekonomiari eta familia kontsumitzaileei eragiten diela?

Elektrizitate faktura jasotzen duzunean, albistegia ikusten duzunean edo prentsa irakurtzen duzunean sumindu egiten bazara egoera honen aurrean... iritsi da zerbañt egiteko garaia konpainia elektriko handiak aberas-teari uzteko eta iruzurra eta ustelkeria hazteari uzteko.

Jardunaldi hauetan energia-merkatuaren egoeraz eta kooperatiba energetikoen eredu berriaz eztabaidatuko dugu. Alternatibak eskainiko dizkizugu aurrezpenerako, energia-eraginkortasunerako eta etxean energia % 100 berriztagarriak erabiltzeko bidean lehen urratsak eman ditzazun.

Animatu eta parte hartu!

HITZALDIA: "HACIA UN NUEVO MODELO ENERGÉTICO". ESTATUKO MERKATU ELEKTRIKOAREN ANALISIA.

Rosa Martínez. Zientzia politikoetan lizentziatua, ekologista, feminista. Bizkaitik diputatua kongresuan eta EQUOko bozelaramailea.

Arrasate: Apirilak 25, astelehena, 18:30.

Tokia: Kulturateko areto nagusia, Arrasate.

Hizkuntza: Gaztelera.

MAHAI-INGURUA: "UDALERRIETAKO IRAUNKORTASUN ETA BURUJABETZA ENERGETIKORANTZ".

- Kepa Urzelai, Legazpiko alkatea.

- Gorka Egia, Orendaingo alkatea.

- Jon Ugarte, Aramaioko Udaleko mendi eta ingurugiroko zinegotzia.

Moderatzailea: **Olatz Azurza Zubizarreta**. Energia berriztagarrietan ingeniaria, EHUko irakaslea eta Goiener S.Coop-en sustatzailea.

Oñati: Apirilak 26, asteartea, 18:30.

Tokia: Oñatiko Kultur Etxea (zinema aretoa).

Hizkuntza: Euskera.

HITZALDIA: GOIENER (ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOOPERATIBA) PROIEKTUAREN AURKEZPENA ETA ELEKTRIZITATE-FAKTURA ULERTZEKO TAILERRA

Diego Eguizabal Olloquiegui. Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta Goiener-eko bazkidea.

Arrasate: Apirilak 27, asteazkena, 18:30.

Tokia: Kuturateko Loramendi gela, Arrasate.

Hizkuntza: Euskera.

*Zure fakturarekin etortzen bazara faktura elektrikoa ulertzen ikasiko duzu eta jaisteko aholkuak jasoko dituzu.

HITZALDIA: GOIENER (ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOOPERATIBA) PROIEKTUAREN AURKEZPENA ETA ELEKTRIZITATE-FAKTURA ULERTZEKO TAILERRA.

Erika Martínez, Goiener S.Coop-eko komunikazio-arduraduna.

Bergara: Apirilak 28, osteguna, 18:30.

Tokia: Irizar jauregia, Bergara.

Hizkuntza: Gaztelera.

*Zure fakturarekin etortzen bazara faktura elektrikoa ulertzen ikasiko duzu eta jaisteko aholkuak jasoko dituzu.

MONOLOGOA: "Y TÚ ¿CÓMO TE SOSTIENES?"

Aldatu Fundazioa

Antzuola: Apirilak 29, ostirala, 22:00.

Tokia: Torresoro, Antzuola.

Hizkuntza: Gaztelera.

ZER DA GOIENER?

Goiener Euskadin sortutako irabazi asmorik gabeko kooperatiba da, bazkideei jatorri berriztagarri egiaztatua duen elektrizitatea gain kosturik gabe eskaintzen diena. Ekoizpen proiektu txikiak garatzeko lan egiten du bazkideen energia eskaerei erantzuna emateko, horrela oinarrizko ondasun honen kontrola lortu ahal izateko.

Web bidezko tramite erraz bat eginez, **instalazioan aldaketa teknikorik egin gabe**, GOIENERera pasa zaitezke.
[Http://www.goiener.com](http://www.goiener.com).

Zertarako? **Kontsumo arduratsua** bultzatzeko eta gaur egungo energia-eredua aldatzeko.

DEBAGOIENAKO GOIENER TALDEA

Debagoieneko Goiener taldea, bazkideek osatutako boluntario talde bat gara. Proiektua babesten duen talde bat gara. Gure egiteko nagusia Debagoiengan jendea Goiener proiektuaz jabetzea eta proiektua zabaltzea da.

Parte hartzeko interesa baduzu jar zaitezke gurekin harremanetan mezu bat bidalita zure izena, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia adieraziz honako helbide honetara:
goienerdebagoiena@gmail.com

ZATOZ, BEHAR DUZUN INFORMAZIOA EMANGO DIZUGU!

Jardunaldietako ekintza guztietan egongo dira informazioa emateko mahaiak eta zure datuak eman ahalko dituzu kooperatibako bazkide edo bezero egiteko. Hornitzailez aldatzeko, kontratu bat eskatzeko, kontratu berri batean alta hartzeko edo Debagoieneko Goiener Taldean parte hartzeko aukera ere izango duzu.

HARREMAN
Arrosotek-mundura


ELKARHEZITZEN
Debagoieneko Garapenerako
Hezkuntzarako Lan taldea


Hiru atx


SERSO


**POWER TO
THE PEOPLE**
goiener
Energia berriztagarrien sorkuntza
eta kontsumo kooperatiba
Cooperativa de generación y
consumo de energía renovable


ACTIVOS · POR · UN · MUNDO · SOLIDARIO


**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA** **AGENCIA VAŠCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO**

